

**ZENBAT BURU**

Aitor Argarate

**ERREPORTAJEA**

Maitasun  
kontuekin  
buelbaka

**UDALETXETIK**

Udalerrien  
Biltzarraren  
inguruan

**GEHIGARRIA**

txikiBARREN

**BERBETAN**

Leire Urkidi  
kazetaria

**KULTURA**

Santa Agedaren  
omenezko eskeak

# BARREN

1999ko otsailaren 12a  
VII. urtea - 266. zkia

E I G O I T A R E K A R I A



# Inauteriak 99



# ANTT Aseguruen Aholkularitza S.L.



## Aholkularitza

- Aseguru mota gurtietan
- Inbertsioetan



Antonio Arrillaga, 1 behea • Tel: 943 74 80 92 • Faxe: 943 74 82 42

# ArJr, nr 'ts 11.

Inoluterietelke  
zure Glrgezki@lle  
arckbetecan  
errebeloituok!



## Inauterietako estudioko argazkiak prezio berezietan

Santa Ana, 5 • Tel: 943 74 06 46



AITOR ARGARATE

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Ko!aboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, plurattasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## TeleBARREN

**H**alaxe, bat-batean Gorri ezizeneko batek sinatutako artikuluska datorkit oroime-neko zulo beltz batetik, urteetan hantxe, sakontasun horretan isilean egon eta gero. Ate joka bezala nabaritu dut, ez zebilen urduri, ez zebilen presaka, nolabait bere ahanztura hartatik atera nahi zuelako susmoa hartu diot, baina ez da erraza izaten ezusteei edo ustekabeei aurre egitea besterik gabe, denbora behar izaten dugu egoera berriari moldatzeko, edo besterik ez bada ere, kasuan kasuko jarrera hartzeko.

Horretan nenbilela, beste eztenkada gotor batek astindu eta zorabioan murgilarazi nau. Izerdi hotza eta urduritasuna nagusi ziren egoera hartan, plato batean ikusten nuen neure burua. Inagurazio eguna zen eta sekulako ikusmina genuen emankizun berri harekin, izan ere, protagonista nagusiak, ohi ez bezala, hurbileko pertsonak izango ziren, gaiak ere guztion arreta sortzeko modukoak, eta trataera oso librekoak eta naturalekoak.

Ez neukan berehala iruditan azaldu beharrik. Tartetxoa geneukan azken ikutuak emateko eta, nik gidoia berrikusteari eman nion, neu bainintzen aurkezlea, ordurarte sekula telebista aurrean jarri gabeko kazetari ikasketak bukatu berria.

Oso ideia nahasiak nituen, ez nintzen gai egun hartakoaz bakarrik erreparatzeko, programa hori aurrera ateratzeko egin behar izan genituen ahaleginak eta esfortzuak dirua lortzeko, udaletxekoekin bilerak, jaietan etab. etan egindako lana... gogorazten zidaten. Bestetik, programaren nondik norakoak zetozkidan, hala nola, gure herriko zahortegien eta, zaborra biltzeko politika zein den, lurzoru industrialekin zer gertatzen ari zaigun (herriko lantegiak inguruko beste industrialde batzuetara irten ez daitezten), gure herrian hain hedatuak eta ongi antolatuak diren soziedadeetan ba omen dira neskak bazkide izateko eskakizunak egingo di-

tuztenak eta honen inguruko gora beherak, herrian dauden kultura eta kirol elkarteekin izandako elkarrizketak beren egoerak eta nahiak adierazteko, herrian ikasketak egiteko aukeren azalpena eta adierazpena...

Izan ere, ordurarte prentsa idatzian banintzen aritua, baina garbi dago ikusentzunezkoen aurrean papera nahikoa bazterturik gelditzen dela, denbora gehiago ematen diogula irudiari eta belarriari letrari baino eta, oraingoan daukagun nonnalizazio gose honetan, hizkuntzak ere behar duela bere egokitzapena eta, orain artekoa albo batera utzi gabe bide berriak jorratu behar ditugula eta, irudiarena ezinbestekoa dela.

Hausnarketa simple horrekin ekin genion egitasmoari eta, esfortzuak esfortzu, ez da apartekoa izan, herrian badagoelako horretarako gogoia eta ekimena, baina herritarren alde-tik, bai herri administrazioaren aldetik, halaxe bada, lokala eta beharrezko tresneria hartu eta lanean hasi baino ez genuen egin behar izan. Logotipoa sortzeko eta sintoniarako ez da inolako arazorik egon, herri honetan zerbait baldin badaukagu artistak eta musikariak dira eta.

Nik baino eskarmentu handiagoa duen batek eta, marketing kontuetan aditua eta trebatua den horrek aho zabalik utzi gintuen proposamen bat ere egin zuen, ostiral eta larunbat gauetarako, hain zuzen ere. Ez dagoela normalizazio bide honetan lizunkeria gordina baino emankizun hoberik eta, igandeetan eman ezean ez letorkigukeela txarto horrelakoren bat astebururako grina mantendu ahal izateko eta, bide batez, gozamenari ere gustu apur bat emateko, zer arraio!

Urte asko pasatu dira Gorrik herri-aldizkarian idatzi zuenetik. Azken urte hauetan ere badaukagu asteroko herri-aldizkaria eta, honekin batera, laster batean TeLeBARREN ere izan dezagula. Hala biz.

Barreak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

TP 943 74 41 12

Publizitatea:

zs 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA — Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA — Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA — Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA — Maitane Cid

MAKETATZAILEA — Bea Ansoia

ADMINISTRAZIOA — Amaia Martin

GERENTZIA — Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK — Iñiti Agirreazaldegia,

Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate,

Idola Arozena, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Ongarri Zine Kluba,

Asier Orbea, Iñigo Otaño,

Jon Peli Uriguen, Iban Urizar,

Amaia Urzelai, Maite Vallejo.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA — Certu Koop. E.

TIRADA — 4.000 ale

LEGE GORDAILUA — 55-1.038/92

ISSN — 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko

Jaurlaritzako Kultura

Sailak eta Foru

Aldundiak diruz

lagundutako

aldizkaria.



fundazioa

fundaciOn

4 4444 00071

**4 DANOBAT**

**44 00M71**  
GRUPO DANOBAT

## Ertzantzak betiko lepotik burua

asa den tarunbatean, hilak 6, bortizki jipoitu ondoren, Ertzantzak David Fernandez gaztea (sinatzailea) atxilotu zuen agintarien aginduei muzin egitearen akusaziopean.

Gazte hau Eibartik zetorren auto-stoppean. Bat-batean, Elgoibarrera iristear zegoelarik, Sigmako auzoan Ertzantzaren kontrol batek geldiarazi eta NANA eskatu zioten. Gazte honek NANA eman eta handik denbora gutxira ertzain batengana jo zuen eta etxera joan behar zuela jakinarazi zion. Orduan ertzainak zera esan zion:

*Te vas a quedar aqui todo el tiempo que a mi se me ponga en los cojones'.*

Erantzun hau jaso ondoren, NANA utzi eta bertatik alde egiten hasi zen David. 200 metro egin aurretik, lehen aipatutako ertzaina Davidengana hurbildu eta egundoko kolpeak jotzen hasi zitzaion. Ondoren, atxilotu eta Eibarko basera eramán zuten.

Ertzantzak gazte honi egindako eraso delako medio, larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 18:00etan Madalan hasiko den manifestaziora dei egiten dizuegu, hurrengo zu zeu izan zaitezkeelako!!

Errepresio polizialaren kontra!!!

David Fernldez Macias

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dule argitaratu afial izaleko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.



• Haurren segurtasunaz kezkatuak herritar batek keza hau bidali digu: "Haurrek **Alkorta**ko **tailerra zegoen lekutik joaten dira Ikastolara**. Lehen Malape aurretik pasatzen ziren baina gaur egun Alkorta ko terrenoetan aparkalekua dagoenez, handik joaten dira bidea motzagoa delako. Anbulategiko kaletik aparkalekura sartzeko errepidea gurutzatu behar izaten dute baina bertan ez dago zebra biderik. Horregatik udaltzainen bat bertan egotea komeniko litzateke, batez ere Ikastolako sarrera eta irteera orduetan".

• Kiroldegi parean bizi den senar-emazte batek deitu digu honako keza hau argitaratzeko eskatuz: "San **Rokera** **igotzeko zubia txikia eta estua geratu da**. Jendeak bide erdira irtenda ibili behar izaten du eta halakoren batean ezbeharren bat gertatuko da. Orduan hasiko al dituzte zabaltzeko obrak? Udaletxean proiekturen bat aurkeztuta dagoela ere jakin dugu baina ez omen diote batere kasurik egin".



# BA

£.5



## Benantzio Otaegi

Parrokoa

Gipuzkoako Elizak etorkizunerako lan oinarriak eztabaidatu eta finkatu berri ditu. Urte eta erdiko debatearen ostean, testu berria zein den azaldu zuten Jose Maria Setien Goitzaiak eta Jose Antonio Pagolak. Elgoibarko Parrokian ere zapatuan eta domekan banatu zen dokumentua eta bertan esaten denari buruz berba egiteko deitu diogu **Benantzio Otaegi parrokoari**.

- **Benantzio, esaiguzu zein diren dokumentuaren lan ildo nagusiak**. Batetik, elizak gaurko gizarteari begiratu behar dio, gizarteak zer nahi duen kontuan hartu. Gizarteak elizari eskatu dio Ebanjelioarekin lotura handiagoa izateko eta beraz, Ebanjelioaren zerbitzura egon behar dugu. Gizarteari begira dagoen eliza nahi badugu, laikoek protagonismo handiagoa izan behar dute. Ez da eliza itxia izan behar; gertuko eliza nahi dugu, gazteen-gandik eta familiengandik, eta batez ere, sufrizten dutenengandik hurbil dagoena. Azkenik, bakearen aldeko lana egingo duen eliza izango da, indarrak batuz eta adiskidetzea bultzatuz.


- **Laikoek gero eta protagonismo handiagoa izango dutela esan diguzu. Apaizak falta al dira?** Laikoek garrantzia handiagoa izatea ez da apaizak falta direlako bakarrik. Kontziliotik hona elizak egin beharreko gauza bat izan da. Elizaren iturrietara bueltatzea da, Jesukristo eta apostuluak ez ziren apaizak izan. Eliza ez da kleroarena, bataiatutako pertsona guztiona baizik. Beraz, pertsona guztiak gara berdinak elizarentzat eta denek dute zeresana.

- **Euskal Herriko bake prozesuan elizak parte hartu behar duela ere onartu duzue**. Gure gizartean bizi dugun giroa ikusiz, eliza bakea egitera deitua dago. Gipuzkoako elizaren helburuetan bakegintzaren gaia oinarritzkoa da. 93an, Arantzazura igoera egin genuen kristau talde handi batek eta manifestu bat egin zen bakearen gaiaren inguruan. Beraz, aspaldi lantzen ari garen gaia da, ez da oraingoa.

- **Eztabaida handiak izan al dira dokumentua idazterakoan?** Ezetz esango nuke, elizkide guztiek hartu baitugu parte. 97ko San Andreseko igandean kristau asanblada egin genuen Parrokian nondik jo behar dugun zehazteko. Ondoren, bailaran hainbat bilera egin ziren eta, azkenik, Elizbarrutiko Pastoral Kontselluak onartu eta Setienen onspena jaso ondoren argitaratu da dokumentua. Azterketa sakona eskatu duen prozesua izan da.

## ESKERTZA

1999ko otsailaren Sean, 85 urte zituela hil zen **MARIA ISABEL MENDIZABAL**en sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Yaunyoli;oa mailasunaren riuurri

**M**aite Vallejoren eta Enrike Larratiagaren arteko maitasun istorioa benetan bitxia da eta letra handitan idazteko modukoa. gainera. Elkar ezagutu zutenean Enrike apaiza zen. Gaur egun 19 urte daramatzate ezkontuta eta aitortu digutenez, "egunetik egunera gero eta gehiago maite dugu elkar, gure laztanak gero eta goxoagoak dira". Bikotearan etxean elkartu ginen, "zazpigarren pisuan bizi gera, ixa zeruan", esan zigun Maitek. "Enrike Elgoibarko Institutua martxan jartzera etorri zen, zuzendari bezala, eta orduan ezagutu naban. Nik 17 urte neruan alargun eta 3 seme-alaba nitxun. Alaba Institutuan hasi zan eta ni gurasuen komisivan sartu nitzan. Holaxe ezagutu gendun elkar". Hala ere, hasieran adiskidetasuna baino ez zena polilci-poliki sentimendu sako-nagoa bihurtu zen. Maitek azaldu digunez, "nik burutik

**"Beti esaten dugu askatasunez gaudela lotuta"**

ra naban karneta!". Maitasuna sortzen ari zela konturatu zirenean, Enrike izan zen lehen pausoa eman zuena, "Maiteri galdetu nion ia berriz ezkonduko zan eta berak esan zian, bere neurriko zapatia topatuko balu, baietz". Kontua da Gozaiarekin hitz egitera joan zirela eta hark esan zien zain egon beharko zutela Erromatik Aita Santuaren baimena iritsi arte. Bi urte pasa ziren eta baimena eskuartean izan zutenean, Olatzen ezkondu ziren.

Biek oso garbi dute zertan oinarritzen den beraien maitasuna, "gu konsziente gara gizakion maitasuna mugatua dela eta horrek ezin dituela gure bihotzak bete. Horregatik, maitasun haundi eta oso batetik edaten dugu, Jaungoikoaren maitasunetik eta iturri horrek ematen digu ura". Ezkondu zirenean abesti bat sortu zuten, "zu zera zu, ni naiz ni, eta biok gera gu. Zu zera neretzat, eta ni zuretzat eta biok maitasuzarentzat, Jatingoikoarentzat".

Azken batean, "batak bestea den bezala errespetatu behar du eta ez dizkio hegoak moztu behar. Beti esaten dugu askatasunez gaudela lotuta. Gu zorientsuak garenez, gure maitasunaren oinarria herriz herri zabaltzen lan egiten dugu". Azken batean, Enrikeri Maite gustatu zitzaion, "polita zelako, goxua zelako, ona zelako eta euskalduna zelako eta oraindik berdin jarraitzen du, beraz, bere boltsikoan sartuta nauka eta izango nau beti". Maiteri, berriz, Enrikeren espiritualtasuna gustatu zitzaion, "sintonizatu egiten genuen, bikote batek behar duen armonia geneukan eta horrek oraindik ere irauten du. Fedea daukagulako. Maitasun Haunditik edaten dugulako".

**kendu** nahi naban Enrike eta auto-karneta ataritzen hasi nitzan, distraitze-ko asmuakin. Baina, bost aldiz in naban azterketia eta ez naban aprobatzerik lortzen. Azkenian, Enrikeren amak esanda, Enrikekin hasi nitzan ikasten eta, zela diazen gauzak, berakin hasi eta lelungan ata-



**\*atio'an, okàt;7114 £4 jczo**  
*,Znienith &yana: Oala bereziAri*  
*'aritnia eia lo.nirumon aich*  
*bafera .41:zia., 21:2626alinarlastin irfortb*  
*eraignisinaJittha 6X treyu. JA217*  
*ere ,Zczlentn2 apariz er'romafarrařzan*  
*zen. ,Zereyarezzn, Glandli gga*  
*enperacAreaz(salc&iirelo'6"elaia ey.th*

arremC112 serio

**M**aitasunak bete-betea hantapatu zuten egun batean Joseba Ulazia eta Mainer Larrailaga. 18 eta 17 urte dituzte, eta maitasunak abisatu gabe jo zuen euren bihotzeko atea.

"Oin dalabi urte inguru, Txitxarro-ra txirindulari subidia antolatatu zan eta bixok jun ginan, baina oindiok ez ginan ezagutzen.

Bueno, ezagutu bai, baina bish-taz". Mainer bakarrik zegoen, "eta, Joseba ilcusi nabanian, berangana jun nitzan eta berbe tan hasi ginan. Fletxazua izan zan". Lehenengo pausoa nork eman zuen galdetu diegunean, biek batera erantzun digute: "nik!". Batak zein besteak eman lehenengo pausoa, argi dago berehala maitemindu zirela. "Bi urte eta hiru hilabete egingo ditxugu bixar (otsailaren 11n)".

Harreman serioa da Josebaren eta Mainerren artekoa. Aurretik biak eduki zuten beste bikote bat, baina hiruzpalau hilabete bakarrik iraun zuen. "Harreman bat bizitza osorako izango dan ala ez ezin dozu jakin",



# 1 IS OIHO YOXOA

## Yiruycz yuzlien yaineli'

Maitasun istorio hau ere oso berezia da. Rebeca Tolentinok 39 urte dauzka eta Filipinasen jaio zen. Bere senarra, Pablo Lozano, elgoibartarra da. Madrilen ezagutu zuten elkar. Rebeca bertan zegoen lanean, "diskoteka batean abesten nuen". Talde bat zeukan eta *tou-rra* egin zuten Estatuan. Donostian abestu zuen batean, Pablok Rebeca ezagutzeko aukera izan zuen. Hasieran lagunak baino ez ziren, baina las-ter piztu zen maitasunaren txinparta. Egun batean, Rebecak zera esan zion bere senarra izango zenari: "nirekin egon nahi baduzu, arroz mordoa erosi beharko didazu". Hitza hartu eta Rebeca eta taldekideak etxera gonbidatu zituen bazkaltzera Pablok. Pae-lla ederra prestatu zuen. Ordituk aurrera, Pablo ez zen Rebecarengandik aldendu. Edozein tokitara abestera joaten zenean, Pablo han izaten zen. Hiru hilabetera edo, elkarrekin irteten hasi ziren. "Se-

**"Sekulako pazientzia izan zuen senarrak, ez nizkion gauzak gehiegi erraztu"**

Hala ere, zorte txarra izan zuten, "han geundela Estatu kolpea izan zen eta ez genuen disfrutatzen aukerarik izan",

Pablok eta Rebecak bi alaba dituzte, 8 eta 5 urtekoak. Rebecak ez du inongo arazorik izan gure bizi-rodura egokitzeko. "Hasieran jendeak begi ratu egiten ninduen, 'han doa txinatarra', esaten zuten

baina orain oso gustura bizi naiz hemen. Lantzean behin gogoratzen da jaioterriarekin baina dagoeneko bertalcotuta dago. Filipinasen *tabalo* hizkuntza hitz egiten dute eta etorri zenean, Rebecak apenas zekien gaztelaniaz. Alabekin gaztelaniaz aritzen da, "*tabaloz* oso gutxi hitz egiten dugu, senarra ni baino gehiago aritzen da alabekin tabaloz. Nola diren gauzak!". Maitasunak kultura desberdineko bi lagun elkartu ditu oraingoan. Maitasunak ez du mugarik, ez oztoporik, ezta ezinezko-rik ere.

kulako pazientzia izan zuen senarrak, ez nizki on gauzak gehiegi erraztu. Asko mimatzen ninduen". Urtebete eman zuten elkarrekin bizitzen eta ondoren, duela 10 urte hain justu, ezkondu egin ziren. "Hasieran ezkutuan ezkondu ginen, papeleoa zela-eta. Pablaren gurasoek berria jakin zutenean, elizatik ezkondu behar ginela esaten ziguten behin eta berriz, askoz politagoa zela". Erljio aldetik ez zen arazorik egon, Rebeca katolikoa baita. Eztei-bidaia Filipinasera egin zuten, Rebecaren jaioterria ikusi eta gurasoak ezagutzeko.

*z117 ezironfzea, 72ak ere, Vafenlinen irtkan Inizen zfluenu 6r(ofea Inperaiareadft:zi6n zuwean, goaria alVfoia efa.,jeriakera.Anofena/u zuen. &spefrea zeyvela, zarnorarraren aliz6; n'suaz marYPininciltr zen Zaienhni znienean, nesia frzllearii 'nsinena rizti/iztbn.*


esan digu Josebak, "baina oin ez dou holakorik pentsatzen, elkarrekin jarraituko dogula pentsatzen dogu".

Josebaren gurasoek ezagutzen dute Maider eta honen gurasoek ere ezagutzen dute Joseba. "Konturatu dia guria seriva dala, eta oin, abuztuan elkarrekin Saloura juteko konbentzitu nahi ditzugu. Dirua aurrezten ari gera eta momentu honetan ilusio horrekin bizi gera". Erromantiko xamarrak direla aitortu digute, "Joseba ni baino gehixo. Beti eitxen dia opariren bat, eta detaile asko eukitzen ditxu nerekin". Maitasuna egunero elkarri adierazi beharrek zerbait da bikote gazte honen ustez, "batzuetan, hala ere, jende gehixokin egoteko biharra eukitzen dogu. Elgoibarko Institutuan ikasten dogu eta jolasorduetan eta klase bitxartiak elkarrekin egoteko aprobetxatzen doguz.

Honez gain, asteburuetan elkarrekin egoten gera". Askotan entzunduko zerate eta antzerakoak, "ezkonduko geran ala ez ezin leike jakin. Gu gustura goaz eta luzerako izatia espero dogu".



# Gustatuko al litzaizuke kalear metro beteko elurra egitea?



**CARLOS LEHR**

24 urte, delineantea

Ez, ez naiz elurzalia eta ez jata eskiatzera jutia gustatzen. Hotza ondo dao lane-rako eta barruan eoteko, baina kalian ibiltzeko hobe egualdi ona.



**LUIS LOPEZ**

36 urte, mekanikoa

Hobe metro eta erdi ! Horrela ezingo ginatke lanera joan. Egia esateko, elurra polita da etxe barrutik, epel-epel zaudela ikusteko.



**JOSEBA DE DIEGO**

10 urte, ikaslea

Bai, bai. Egun batian bakarrik izan biharrian, hobe zortzi egunez egingo balu. Askok gustatzen jata elurrezko bolak eixia lagunei botatzeko.



**MIREN AGIRRE**

11 urte, ikaslea

Bai, ilusio haundixa eingo liake ze aspaldi ez dau kalian elurrik ein. Hotzagatik ez dao probleinarik, ondo abrigau eta kalerak.



**ANA NIONTERD**

52 urte, etxeko langilea

Alde batetik bai, polita delako eta gustatzen zaidalako. Baina, bestetik, kalean ibiltzeko arriskutsua da. Hala ere, oinetako aproposak jantzita akabo arazoa!



**LUIS DE PRADO**

38 urte, Man-komunitateko langilea

Gauetz eta kalean egiten dut lan, beraz, nahiago dut ez balu egingo. Hala ere, beste egoera batean banengo gustatuko litzaidake.

Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

**01 E RKI 1GOGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertatik, segituan

943 20 35 15 • 'E' ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

Otsailak 13 larunbata, arratsaldean irekita

San Bartolome, 26  
Tel. 943 74 08 48

**foto azkue**

Asteartean hilak 16, 14:30etatik aurrera irekita



# ISPILUARI BEGIRA



Bixente Alonso

**SOFTLAN Informatika enpresakoa**

- Nora nabigatu nahiko zenuke? Konpainia onarekin, edozein tokitara.

- Zein birus desagertaraziko zenuke gure gizartetik? Gorrotoaren birusa.

- Zure bizitzako zein une gogoratuko zenuke pantaila batean? Ezkondu nintzen eguna edo, adibidez, afarietan anaia eta biok jotak abestu izan ditugun uneak.

Zer egingo zenuke Bill Gates-en dirutza bazenu? Uste dut niretzat arazo handia izango litzatekeela. Ez dit inbidia handirik ematen.

- Euskal Herriari buruzko zein informazio argitaratuko zenuke Internet-eko orrialde batean? Euskal gizartea normalizatu egin dela eta Euskal Herriak bere bidea egiten duela erakutsiko nuke.

Noiz gustatzen zaizu `txip'a aldatzea? Asteburuetan etxean musika entzunez, irakurriz edo telebista ikusiz aldatzen dut txipa. Kostaldera joan eta itsasoa ikustea ere gustatzen zait.

- Noren sareetan eroriko zinateke gustura? Julia Roberts-en sareetan.

- Zein pelikulatan hartuko zenuke parte birtualki? `Alguien volci sobre el nido del Cuco' pelikulan.

- Ziberkaferen bat zabalduko zenuke Elgoibarren? Ez dut uste Elgoibarren etorkizun handirik izango zukeenik.

- Emakumeekin magnetismorik duzula uste al duzu? Nahiago dut hori eurek erantzutea.

- Zein egoeratan sentitu zara `mikrotxip' bat bezain txikia? Aita hilzorian zegoenean eta ezin nuela ezer egin konturatu nintzenean. Berarentzat oso inportantea nintzela ikustean, `makro' sentitu nintzen, baina ezin nuela ezer egin ikusterakoan, `mikro' sentitu nintzen.

- Teknologia aurrerakuntza al da? Ongi aplikatuz gero bai. Gaizki aplikatzen bada, beti bezala, atzerakuntza.

- Zerk jartzen zaitu mila megahertziotara? Esan ezin ditudan hainbat gauzak, gustatzen zaidan musika entzuteak, lagunekin edo emutearekin gustura egoteak, Athletic-ek gola sartzeak,...

Ion Gurrutxaga



## I. URTEURRENA


1998ko otsailaren 20an, 85 urte zituela hil zen

LUCIA URIA LOIOLAren oroimenez

URTEURRENEKO MEZA izango da Altzolako Parrokian

igandean, hilak 21, goizeko 11:00etan.

Joaten zaretenoi eskerrak aldezturik.




## ESKERTZA

1999ko urtarrilaren 27an, 87 urte zituela hil zen

JOSE ARANA OSOROren sendiak,

bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



• **Morkaikorekin eskiatzera joateko irteera**

Morkaiko Mendizale Elkartek Jacara irteera antolatatu du martxoaren 6rako eta 7rako. Astun-en eski alpinoa egiteko aukera izango da eta Somport-en fondoko eskia. Irteeraren zenbatekoa 4.500 pta.koa da eta prezioaren barruan sartzen dira lo egiteko lekua Jacan, pentsio erdia eta autobusa. Izena emateko Morkaiko Mendizale Elkartera zuzendu hilaren 26a baino lehen. Ordainketa aurrez egin beharko da.

Bestalde, datorren domekarako, hilak 21, Aralar mendira irteera antolatu dute. Mendi trabesia izango da, goizean goiz irten eta eguerdi partera, etxera bueltatuko dira. Trabesiara joan nahi duenak hilaren 19a baino lehen eman beharko du izena Morkaikoren egoitzan (943 74 02 97).

**10.00e eUa ILIGO plan MovIeb sarlak banatuko dira zapaltalo hfozorro Ionlo/an**

Izena emateko epea gaueko 23:30ean amaituko da

**B**ihar, hilak 13, Inauteriak hasiko dira. Urtero bezala, zapatua eta astearte izango dira mozorrotzeko egunak. Egun horietarako Udalak eta herriko elkarteek antolatutako ekitaldiak ere asko dira. Hasteko, zapatuan, arratsaldeko 17:00e tan Atxutxikaraokea izango da Plaza Handian Elgoibarko Izarrako Atxutxia maika Begirale Taldearen eskutik. Gauean, *Trakets* taldearen emanaldiaren eta Mauxitxa txarangaren kalejiraren ostean, gaueko 12:00etan hain justu, Mozorro Lehiaketa hasiko da. Gurutze Gorriko Astialdi Taldekoak ari dira antolakuntza lanetan eta beranduenez, gaueko 23:30ak arte eman daitekeela izena azpimarratu nahi dute. Sariak ez dira nolana hikoak:



Bestalde, asteartean, hilak 16, herriko haurrak, mozorrotuta noski, Plaza Handian elkartuko dira arratsaldeko 16:30ean. Ondoren, *Telmah* taldearekin ikuskizun politaz gozatzeko aukera izango dute. Mauxitxa txarangak kalejira eskainiko du eta eguna amaitzeko, suzko zezena izango da.

**Sariak**

<b>Taldeka</b>	<b>Banaka:</b>
1- 30.000 pta.	1- 20.000 pta.
2- 20.000 pta.	2- 15.000 pta.
3- 15.000 pta.	<b>Koreografia onena:</b>
	10.000 pta.

**Mozorro jai Jubilatutako Etxean**


Urtero bezala, Jubilatutako Etxean Mozorro Lehiaketa antolatu dute. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera eta Gelatxo taldeak alaituta, bi sari banatuko dira hobetoen mozorrotutakoaren artean.

**Urbeltzer `Dantza Ganbara' saioa izango da gaur, hilak 12,, Elgoibarko Izarraren eskutik**

Kultur Etxeko sotoan izango da eta dantzan ikasi eta egin nahi duen guztiari dago zuzendua

**K**ultur Errota egitasmoaren baitan, Koraingoan Juan Antonio Urbeltzen `Dantza Ganbara' izango dugu Elgoibarren Topagunearen eta Elgoibarko Izarraren eskutik. Elkartekoek adizteraz eman digutenez, "dantzarako aitzakia ederra izango dugu gaur, ostirala, Kultur Etxeko sotoan". Izan ere, `Dantza Ganbara' ez da dantza ikuskizun bat, "dantza ikasteko eta egiteko motibo ederra baizik".

Urbeltzen esanetara, dantza herrikoiak ikasteko eta dantzatzeko aukera izango dute Kultur Etxeko sotoa hurreratzaren diren guztiek. "Ez da dantza



egiten jakin behar, nahikoa da dantzarako gogoia izatea". Urbeltzi laguntzen, berriz, bere emaztea eta semea arituko dira, soinu handiarekin eta biolinarekin. Sarrera 500 pta.koa da eta edaria doan. "Beraz, dantzazale guztiok zita bat daukagu gaur, ostirala, Kultur Etxeko sotoan gaueko 22:30ean hasita".

*Argazkian, Juan Antonio Urbeltz. Dantza Ganbara' saioan, emaztea eta semea izango ditu lagun.*

## Balzola anak, bigarren geratu dira Deba Beheko Trikitilari Txapelketan

Arkaitz eta Oier Balzola, 19 eta 18 urteko anaiak, txapel-dunordeak izan dira Deba Beheko Trikitilari Txapelketan. Aurreko zapatuan izan zen txapelketa, Eibarko Astelena frontoian. Aurten adin librean izan da txapelketa eta 6 bikotek hartu dute parte. Izan ere, aurten apur bat ezberdina izan da txapelketa. Angiozarko Itsua eta Migel Sagaztume trikitilarien omenaldi-ekitaldiaren barruan, bailarako sei bikote onenak biIdu eta euren arteko txapelketa antolatu dute. Partehartzaile hakoitzak lau pieza jo behar zituen, trikitia, porrusalda, arin-arina eta fandangoa. Oier Balzolak esan digunez, "hatzaparren abilidadia, erritmua, kantua, parejian konpenetraziva,... hartzen dabe kontuan. Nerezat, aurten bigarren izatia, iaz txapela irabazia baino inportantiaua izan da. Iaz 18 urtetik beherakoekin hartu gendun parte eta aurten, berriz, gu baino zaharrauekin".



## Ikasle ingelesen bisita

Liverpool ondoko herri bateko ikasle talde hau otsailaren 7an iritsi zen Elgoibarrera. Elgoibarko ikastolaren eta Erresuma Batuko Litherland High School ikastetxearen elkartrukearen barruan, ikasle hauek gure herrian egoteko aukera izango dute hilaren 20ra arte. Honez gain, hainbat irteera egingo dituzte inguruak ezagutzeko. Elkartrukearen helburua, beraz, linguistikoa izateaz aparte, kulturala ere bada. Ikasle ingelesek Ikastolako ikasleen etxeetan hartu dute ostatu eta jakin dugunez, oso gustura daude. Astearte goizean Udaletxera hurreratu ziren Ikastolako irakasle batek eta zuzendariak lagunduta. Gillermo Garate alkateak ongi-etorria eman zien.



## • AEK Euskaltegiaren zozketa: 38.249

Urtarrilaren 29an izan zen AEK Euskaltegiak antolatutako errifaren zozketa. ONCE Elkartearen zozketan saritutako zenbakia izan da irabazlea, 36.249. AEK-k eskerak eman nahi dizkie errifak saltzen ibili direnei eta erosi dituzten guztiei.



## Kultur Etxeak gainezka egin zuen Porrotx pailazoarekin egoteko

Elgoibarko Izanako Atxutxitunaika Begirale Taldeak antolatuta, Porrotx pailazoaren saioa izan zen asteazken arratsaldean. Kultur Etxeko hitzaldi gela hurrez bete zen, eta begiraleek esan digutenez, ondo baino hobeto pasatu zuten. Arratsaldeko 17:00ettut hasita, kantuan aritu ziren eta ondoren, Atxutxikoek prestatutako merienda goxoa dastatzeko aukera izan zuten.

Kultur Errotaren 4. emanaldiaren baitan antolatu zen.



## Ate Irekien Eguna Herri Eskolan

Aurreko zapatuan Ate Irekien Eguna izan zen Herri Eskolan. Goizean, nahi zuenak ikastetxea ikusteko aukera izan zuen eta arratsaldean, berriz, 'Kiki, Koko, Moko eta Flash' pailazoaren emanaldia izan zen haurrentzat. Argazkian ikus daitekeen bezala, haurrek ederki pasatu zuten. Bestetik, ikastetxeko zuzendaritzak ohar bat bidali digu inauteri jaialdia izango dela jakitera emateko. Asteartean, hilak 16, izango da arratsaldeko 15:00etan. "Guraso guztiak ikuskizunera gonbidatu nahi ditugu".

## Gillermo Garate (EAJ) eta Ales Arrieta (EA) Iruñean izan ziren, Udalerrien Biltzarrean

HBko zinegotziek ez zuten joaterik izan konpromezu pertsonalak zirela-eta

*Aurreko zapatuan Udalerrien Biltzarra izan zen Iruñean PNV-EAJ, EA eta EH alderdiek deituta. Elgoibartik bi kide baino ez ziren izan Iruñean, Guillermo Garate alkatea PNVko kideen izenean, eta Ales Arrieta EA alderdiko ordezkari moduan. Elgoibarko HBko ordezkariak bileran egoteko asmoa bazuten ere, Pello Mendizabalek esan digunez, "gogo handia geneukan baina, konpromezu pertsonalak tarteko, ez genuen joaterik izan. Hala ere, ados gaudela ekimen honekin, erabat demokratikoa baita euskaltiunok biltzea proiektu nazional bati buruz berba egiteko".*



Goian, Guillermo Garate alkatea.  
Lerro hauen gainean,  
Ales Arrieta EAko zinegotzia.

**H**auts ugari harrotu dituen gaia da Udalerrien Biltzarrena baina Elgoibarko EAJko, EAko eta HBko ordezkariak bat datoz egitasmo honekin. Guillermo Garate alkatea izan zen PNV-EAJ alderdiko ordezkari bakarra, "gainerako alderdikieek ez zuten joaterik izan. Alkate batentzat interesgarria da udalerrian gertatzen diren gaiak eztabaidatzen diren lekuetan egotea". EA alderdia ordezkatzan Ales Arrieta zinegotzia izan zen. "Honelako gauza bat egiten den estreinako aldia izan da, nire ustez historikoa. Betebehar morala zen han egotea eta gainera, gustura joan nintzen".

Bileraren ostean zein inpresio jaso duten galdetu diegu bai Guillermo Garate eta bai Ales Ancietari ere. Garateren iritziz, "egiteko asko dagoen arren, elkarla-

nean jarraitzeko asmoa somatu dut. Bidea hasi baino ez dugu egin baina oso itxaropentsua naiz. Erabakiak denon artean hartu eta elkarrekin lan egiteko borondatea badago, edozein oztopo gaindi daiteke". Ales Arrieta ere uste berekoa da. "Bilera honek indar abertzaleen arteko batasuna erakusteko balio izan du, aspaldiko partez jarrera aldaketa igartzen da; prestutasuna dago eta hori oso positiboa da". HBko Pello Mendizabalen esanetan, "bilera hau Lizarra-Garaziko akordioaren hurrengo pausoa izan da eta bide honetik jarraitu behar dela uste dugu".

Baikorrak

Iruileako bileraren ostean "baikor" azaldu dira alderdi abertzaleen ordezkariak. Gillenno Garateren esanetan, "ni oso baikorra naiz. Hala ere, badakit kritikak egon direla. Kritikak hor daude, gauzak horrela dira. Arrazoirik gabeko jardunak dira eta jende asko urduri jarri bada, asmata dugulako izan da". Ales Anietaren ustez bakoitza libre da bere iritzia emateko. "Nahi izan dugulako elkartu garañean, eskubidea daukagulako. Agian ez du balio legalik izango da baina egitura inbobilistak mugiarazteko edo zeinbait estamentutan aldaketak sortarazteko balio dezake". Pello Mendizabalen esanetan, "bilera irekia izan da eta denek izan dute parte hartzeko aukera. Kontra azaldu direnak Euskal Herriaren proiektu nazionalaren aurka daude, besterik gabe".

## Sigmako metro karratua 35.000-80.000 pta. bitartean salduko da

Gaur egun pabilioietan dauden enpresei prezio bereziak eskainiko zaizkie

**S**igmak zeresan eta gorabehera ugari sortu ditu itxi zenetik. Une honetan, pabilioiak eta lokalak salgai daude eta metro karratu bakoitza 35.000 eta 60.000 pta. bitartean salduko da. Jose Ignacio Elkoro-Iribe alkate ohia da ordezkari lana egiten ari dena eta bere hitzetan metro karratuaren kostua 35.000 eta 60.000 pta. bitartekoa izango da, lokalaren kokapenaren arabera. Kouporiketarak

Dena dela, aurretik industrialde berrian zenbait obra eta konponketa egiteko asmoa dago. Besteak beste, hormak,

aparkalekuak, trantsformadore zentral berria, ur-sarea eta abar berritu edo konponduko dira. Guztira 500 milioi pezeta inguru inbertituko dituzte. Pabilioi guztiak bere horretan geratuko dira Ecenarro enpresarena izan ezik. Olasto eta Sigmako industrialdeak lotu nahi dituzte eta horretarako, industrialde biak elkartuko dituen kalea egiteko, Ecenarroren pabilioia bota egin beharko da. Elkarte bultzatzaileek Sigmako eraikuntzako atzeko aldean 250-400 m<sup>2</sup>ko moduloak egokitu nahi dituzte enpresa txikientzat.

Sigmako luna enkantera atera zene-

an, gaur egun bertako pabilioietan dauden enpresek ere eskaintza egin zuten. Jose Ignacio Elkoro-Iribek, Sigmaren jabeen ordezkariak azaldu duenez, *Estarta, Niquel Estarta, Ecenarro* eta *Ibai* enpresekin harremanetan jarri dira. Jabe berriek hasieratik adierazi zuten lurraren erabilera industrial bultzatuko zutela eta une honetan bertan dauden enpresa txikieiei prezio bereziak eskainiko zizkietea, batez beste m<sup>2</sup>ko 350 pta. (hileko). Prezioak merkeagoak izango diren arren, oraindik ez dira ados jarri behinbetiko prezioari dagokionean.

# Txiki BARRREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 50. GEHIGARRIA



kastolak urtarrilaren 22an egin zuen jaialdiko bi erretratu ikus ditzakegu. Antzerkiaren bidez euskara barneratzea zuten helburuetariko bat, bide batez, euskara erabiltzeko animoak luzatuz.

7\*2~

Mutil koskor bat txartelik gabe doa trenean arnarekin; susmagarria iruditzen zaio treneko arduradunari, eta galdetzen dio honek:

- Egia ote da zuk lau urte dituzula?
- Bai, noski; lau urte ditut!
- Ziur gero, ez zaudela oker?
- Ziur-ziur, jauna. Hiru urte daramatzat gauza bera esaten!



## Jakitunen eskutik

### Eskolaz kanpoko larduerak

Umeen heziketan oso garrantzitsua da aisialdia. Horregatik, sormena lantzen duten jarduera sanoak dira umeek egin behar dituztenak denbora librean. Jarduera hauek ez dira sekula derrigorrezkoak izan behar, ezta 'umeaz libratzeko' aitzakia ere. Aitzitik, hasieratik umearekin batera jardueretan parte hartzea garrantzitsua da. Amak edo aitak margotzea gogoko badu, umearentzako marrazkiak egin ditzakete, umeari zirriborroak egiten lagundu edo marrazkiz betetako liburuak oparitu diezazkiokete. Umeak jolasean daudela ikusi behar du, inongo araurik edo lehiarako asmorik gabe.

Jarduera hauek erregularitasunez egiten direnean, umeak mundu berri bat deskubrituko du. Pentsatzeko gaitasuna lantzeaz gain, formazio aberatsagoa izango du eta etorkizunean, satisfazio handiak emango dizkion trebetasun edo zaletasun bat menperatuko du.

Musika, pintura, dantza, interpretazioa, igeriketa,... edozein kirol edo zaletasun izan daiteke aproposa, beti ere umearen nahiak eta gustuak aintzat hartuta.

#### i Musika:

Umeak belarri ona duela ikusten baduzu edo instrumenturen bat gogoko duela aditzera ematen badu, musika ikasketak egiteko aukera eskaini.

Entzumena lantzeaz gain, umearen sentsibilitatea ere handitu egiten da. Musika ikasten hasteko adin egokia 18 hilabetetik aurrerakoa da.

#### ✓ Igeriketa:

Umeak oso txikiak direnean eta euren kabuz moldatzerik ez dutenean, uretan oso gustura sentitzen dira. Uretan ariketa fisikoa egiten dute eta oso ona da haurraren garapenerako. Giharreak eta koordinazioa lantzen dira eta 4 hilabetetik 18 hilabetera bitartean (eskola bakoitzaren arabera) hasten dira igerian ikasten.

#### ✓ Dantza:

Gorputzaren adierazpenerako biderik aproposa da dantza. Entzumena eta sentsibilitate musikala lantzeaz gain, erritmoa eta armonia koordinatzen ikasten dute.

#### ✓ Aerobika

Edozen motatako gimnasia egitea ona da haurrarentzat. Gero eta gehiago ari dira zabaltzen txikiei egokitutako gimnasia ikastaroak. Aerobika, gimnasia erritmikoa, gimnasia artistikoa,... denak dira balekoak. Elastizitatea, indarra, erritmoa, koordinazioa,... lantzen dira.

**Iturria: Crecer Feliz aldizkaria**

## Zer iritzi daukazu

5<sup>4ut</sup> 54<sup>1</sup> ~

## i buruz?



*Uolt Ultm, #1.4144 w4,1144l. opari bat egiten dio gehiago maitemintzeke*

*4,vZ o4,142, 441,a,*

MARTA CONDE, 12 urte



*oo, 44 p. /44~44fro, 4im,i,zt,1440.*

*1(44,e,/t~dd(44p.*

*a4 ot44,:41 j4444. 4440.1440,*

ANDER MARTIN, 10 urte.



*AU4 /4114 g444at eiA.Zh4 heu*

*/044 /4/ tsr4sp, 1447/ze.*

ANGEL MARI LOPEZ, 8 urte



**ASIER  
LIELUZ**  
**8 urte**

## Galde debalde

- Zein da gustuko duzun janaria?
- Noiz egin duzu negar azkenengo aldiz?
- Zein marrazki bizidun izan nahi zenuke?
- Zein ikasgai gustatzen zaizu gehien?
- Nori emango zenioke musu bat San Balentin Egunean?
- Zer izan nahi duzu haunditzen zarenean?
- Zein moztorro ez zenuke sekula jantziko?
- Zein da ikusi duzun azken pelikula?



**MELANY  
FERNASIDIEZ**  
**11 urte**

- 1- Etxean egindako kroketak.
- 2- Aspaldi.
- 3- Osasunkume.
- 4- Gimnasia.
- 5- Amatori.
- 6- Nere lehengusua, ze futbolian asko ibiltzen da eta nik futboiistia izan nahi dot.
- 7- Baserritarrarena.
- 8- Flaber.

- 1 Pizza, gaztarekin eta urdaiazpikoarekin.
- 2- 3, mailan nengoenean, Ez naiz oso negartia.
- 3- Ez daukat bat bereziki gustatzen zaidana. Denak ditut gogoko.
- 4- Matematikak. Ikasgai errazena da nire ustez.
- 5- Brad Pitt aktoreari.
- 6- Moda diseinatzailea.
- 7- Bufoiarena.
- 8- Titanic. Bi aldiz ikusi dut.

## Zer da... ~ ~ ?



Zerbait asko gustatzen zaizunean sentitzen duzuna.

**M. ISABEL AMAIDO 11 URTE**



Leonardo Di Caprio ikusten dudanean Titanic pelikulan, zoramena sartzen zait.

**M. ISABEL AMAIDO 11 URTE**



Maite duzun neskarekin zaudenean eta musu bat ematen dizunean sentitzen duzuna.



Nik sentitzen dudana neska bat aurrean daukadanean.



Etxera berandu iristen naizenean gurean sortzen dena.


**ISAAC IZAL 12 URTE**



Eskursio batera joateko autobusa iristen denean egoten da zoramena.

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Zer da hau?



## 2. Zer galdetu diegu?



**VANESA GOMEZ**  
6 urte

"Eskolakoekin batera joango naiz pingujno jantzita. Urtero egiten dugu berdin eta ez dut neretzat bakarrik izango dena aukeratzen".

**VICTOR MURCIA**  
13 urte

"Neskaz. Eskolako unformarekin eta peluka ilehori batekin. Telebistan ikusi nuen pelikula batetik atera dut ideia".



## 3. Zein zizare lortuko du loroak?



## 4. Asmakizunak

Ikusten dut ondoan dut eta ezin harrapatu.

Gizona beti ari da kentzen eta haia ere ez da gutxitzen.

— Ez naiz arraina eta uretan nabil, gauetan oso pozik abesten diot ilargiari.



Leire Urkidik joan zen urteko ekainean bukatu zituen kazetaritza ikasketak eta orain ETBko albistegietan ari da lanean. Hasieran bere ahotsa bakarririk entzuten genuen, baina azkenaldian kamara aurrean ere agertu da. 23 urteko elgoibartar gazte hau, bekadun bezala hasi zen Euskal Telebistan eta dagoeneko zazpi hilabete daramatza bertan.

LEIRE URKIDI

## "Aukeran, nahiago dut kamara aurrean ez agertzeau

- Nola hasi zinen kazetaritzan? Beti izan dut argi kazetaria izan nahi nuela, baina, karrera aukeratzeko orduan izan nituen nire zalantzak. Jende guztiak beste zerbait aukeratzeko esaten zidan, baina azkenengo erabakia nik hartu behar nuen eta nire nahia bete nuen, eta ez naiz batere damutzen.

— Zein da zure lana ETBn? Gehienbat kamaren atzean egiten dut lan. Testuak idazten ditut euskaraz eta gaztelaniaz, eta bideoei ahotsa jartzen diet. Azkenaldian hiru edo lau aldiz agertu naiz kamara aurrean, baina aukeran nahiago dut aurpegia eman gabe lan egitea. Ez zait batere gustatzen nire burua ikustea, baina azkenean ohitu egiten da. Gainera, garrantzitsua da norbera ikustea, hurrengorako akatsak zuzentzeko.

— ETBn sartu aurretik, aritu al zinen beste komunikabideren batean? Bai. Lehenengo Unibertsitatean hasi nintzen, *Argi eta garbi* izene-

ko ekologia aldizkarian eta *El Perfriclico Universitario* egunkari an. Ondoren, *Europa Pressen* hartu ninduten eta orain ETBn nago. Honez gain, Eibarko KTB herri telebistan ere ibili naiz.

— Elgoibarren herri telebista ateratzeko aukerarik? Oso zaila da. Eibarren egon nintzenez ere, arazoak egoten ziren egunero informatiboak prestatzeko, eta Elgoibar txikiagoa izanik, zailagoa da.

— Zer duzu nahiago, prentsa ala ikusentzunezko komunikabideak? Hasieran nahiago nuen prentsa. Mikrofonoek eta kamarek beldur handia ematen zidaten, baina orain ez nuke aldatuko daukadan. Oso gustura nago telebistan. Hala ere, beste aukerak ez ditut baztertzen.

— Telebistari ez al zaio falta irratia duen misterioa? Nik irratia ez dut probatu. Egia da telebistari irratia daukan bapatekotasuna falta zaiola, baina telebistan irudiarekin jolas-

ten da eta irratia ez du aukera hori ematen. Komunikabide konpletoena da.

— Nolako izan da ETBko esperientzia? Oso ona eta oso aberasgarria. Oso gustura nago eta gauza asko ikasi ditut. Nire ustez, ikasteko biderik onena izan da. Gainera, bertako lan-kideekin harreman ezin hobea daukat eta denak laguntzeko prest daude beti.

— Kontatzeko anekdotarik? Egunero informatiboak egiten ditut eta, bertara iritsi arte ez dut jakiten zein gai jorratu behar dudana. Horrela, egun batean Ibarrolak margotutako basora joatea tokatu zitzaidan, eta ez nuen bertarako arroparik aproposena aukeratu. Gona motza eta zapatekin joan nitzen, eta lurra lokatzez beteta zegoen. Orain barre egiten dut baina oso gaizki pasatu nuen.

— Euskal kazetarien etorkizuna herri komunikabideetan omen dago... Bai, hala uste dut. Sortu daitezkeen lanpostu berriak herri komunikabideek eman ditzakete. Nire ustez ez da irtenbide txarra, eta argi dagoena da denak ezin dugula komunikabide handietan lan egin. Gainera, herri aldizkari bateko lana oso interesgurria da, genero guztiak lantzeko aukera ematen dizulako.

— Zer moduz ikusten duzu kazetari gazteen etorkizuna? Nik nire etorkizuna gaizki ikusten dut, eta ikasten dagoen jendearena berdina. Ni honaino iritsi banaiz, edozein iritsi daiteke, eta aukerak ondo aprobetxatu behar dira. Egia esan, nik nahi nuena lortu dut, baina orain hemen nago eta bihar beharbada kalean. Niri lehenengo aukera eman didate, baina nire etorkizuna beltza ikusten dut.

Ainhoa Andonegi

### S'ESTEE ESAMI

"Lanbidean berria bada ere, ea ikasi beharrekoa ETBn ikasterik duen" UXUE BARKOS, ETBko lankidea.



**Abenduan milaka ellitzkd...  
otsailean milaka ordit**

**lallordu bat  
aliaramaren aide**

**Otsailean ere, eutsi egizu zure konpromisoari**



**euskara ri**

1999-11-12

**KoNTSEILUA**

Larunbatero Larunbatero Larunbatero



**Larunbatero Larunbatero**

**Izena emateko epea otsailaren 22tik 2. Gra**

**hilar-&/frat**

**UHko 2. eta 3. mailak eta LHko 1. eta 2. mailak**

**Patal**

**martxoak 6, 13 eta 27**

**apirilak 17 eta 24**

**malatzak 3, 15, 22 eta 29**

**ofdatepi,**

**10:00etatik 12:30etara**

**t7e47u7**

**irteerak, antzerklak, jolasak,**

**igerilekura irteerak—ondo pasatu.**

**7i7wi/a**

**3.000 pta.**

**/z6IN utrateia**

**Elgoiharko Izarra K.E.**

**Uhitarte 4, behea**

**Tel 943 74 16 26**

**P1/114  
Miefra/iK**



**ANTOLATZAILEA:**  
Elgoibarko Izardko  
Atxulxiamaike 13egirale Taldea

**LAGUNTZAILEA**  
Elgoibarko Udala  
Eusko Joularitza






**Ifonso Lodosok** laga digu erretratu hau eta 1957ko irailaren 1 ean, **Pilar Intxaustiren** despedidan ateratakoa da. Argazkiko emakumeak Zubi-Ondo elkartearen aurrean daude, Santa Klaran, sa-soi hartan jatetxea zen eta. Atzetik hasita, ezkerretik eskumara agertzen direak honakoak dira: **Arrate Ibarbia, jatetxeko karnarrera, Maribi Juaristi, Juanita, Esperanza**

**Unzilla, Rosario Agirre, Maritxu Arrieta, M. Pilar Irusta**  
 Erdiko ilaran zutik agertzen direnak: **Maribi Unzueta, M. Karmen Txurruka, M. Tere Iraegi, Rosario Totorika, Nati Etxeberria, Justa Intxausti, Pilar Etxeberria, Nati Zabaleta, Karmele Larrañaga, Ana M. Intxausti** eta **M. Luisa Intxausti**.  
 Aurrean, eserita: **Pepi Azpiazu, Elena Intxausti, Ines Intxausti, Juanita Intxausti, Pilar Intxausti, Ana M. Mardaras, Maria Intxausti** eta **Felisa Intxausti**.



**IIL URTEURRENA**  
 1996ko otsailaren 11n, **21** urte zituela hil zen **GAIZKA GALDOS ARAKISTAIN**en orotmenez **IIL URTEURRENEKO MEZA** izango da Garagartzako Parrokian igandean, hilak 14, goizeko 12:00etan. Joaten zaretenoi eskerrak alde zurretik.





## "Federatuetan aritzeko babesleen laguntza beharrezkoa da"



### Ion Urbietta

- **Adina:** 21 urte.
- **Altura:** 1,89m.
- **Talderik gogokoena?**  
Tau Ceramica
- **Gustuko beste kirolirik?**  
Txirrindularitza

**-Noiz hasi zinen saskibaloian jokatzen?** Elgoibarko saskibaloitaldian duela hiru urte inguru hasi nitzan, taldea sortu eta urtebetera edo. Baina saskibaloian txikixa naizenetik jolasten dot, betidanik gustau izan jata.

**-Zein txapelketatan ari zarete aurten?** Eibarko txapelketan gabiltza, partiduak Ipurua kiroldegian jokatzen dira eta inguruko herrietako taldeek jokatzen dute, Elgeta, Zaldibar, Ermua eta Elgoibarko taldeek.

**-Zein mailako txapelketa da?** Federatu gabeko jokalarientzat da. Aurten talde askok eman zuten izena eta bi multzo egitea erabaki zuten. Aurreko urteetako emaitzen arabera, maila altuagoko eta baxuagoko taldeak sortu ziren. Elgoibarko jokalariekin bi talde egitea erabaki genuen eta bixak behetako mailan hasi zian. **Lehen** fasia bukatzian, talde batek onenen multzora igotzea lortu zuen. Egixa esan, maila altuaua dao goiko multzuan, federatuta-ko taldeengandik hurbilao daude eta.

**-Zein postutan zaudete?** Bigarren fasia hasi zanetik 3 partidu galdu eta bi irabazi ditzugu. Baina partiduetara 5 jokalaria baino gehiagorekin joatea asko kostatzen zaigu eta horrela oso zaila da partiduak irabaztia. Hasieratik Elgoibarko jokalaria guztiekin talde kompetitibo bakararra ez eitxiaz damutzen gera.

**-Zergatik ez da aurten talde federaturik osatu?** Talde Iehiakorra sortzeko eta federatuekin jolasteko zailtasunak ikusi genitxulako. Horrez gain, Eibarko txapelketan jolastia gure egoera finantzieroarentzat mesedegaria da, arbitraiak guk egiten tugu eta ez dao arbitro federatuei ordaindu beharrik. Bidaietan ez dugu apenas gastatzen. Lehen, berriz, federatuetan geundenean, partidu ia denak Donostialdean jokatzen ziren eta gastuak askoz handiagoak ziren.

**-Nolla ikusten duzu saskibaloiairen egoera Elgoibarren?** Eskubaloiak eta futbolak indar handia daukate Elgoibarren eta horrek kalte handia egiten dio saskibaloiairi. Taldea diruz laguntzeko inor aurkitzia zaila da eta federatuetan aritzeko babesleen laguntza beharrezkoa da. Horrez gain, aurreko urteetan Elgoibarko Kiroldegian jokatzen ziren partiduetara oso ikusle gutxi joaten zen. Jendeak ez zuen interes handirik.

**-Zein postutan jokatzen duzu?** Barruan baino, nahixoa dot hegalian jokatatu. Askotan saskipean lagundu bihar izaten dot, batez ere aurkakook altuagok diazenian.

**-Hurrengo urterako zein asmo dituzue?** Ahal izanez gero ekipo bakararra osatu eta federatuetan arituko gara. Horretarako tituludun entrenatzailea aurkitzia derrigorrezkoa da.

## ESKOLARTEKO KIRALAK

### EMAITZAK Otsailak 2 11. "ardunaldia" 11

#### ESKUBALOIA,

- Benjamin mutilak •  
Ikastola C18 - Mendaro A 1  
Pilar A 1 Ikastola B 10  
Ikastola A 9- Pilar B 9
- Benjamin neskak •  
Ikastola A 2 Pilar A 4  
Ikastola A 3- Pilar B 11
- Infantil mutilak ■  
Pilar B 10 - Insti 11  
Ikastola 23 - Pilar A 4

#### FUTBOLA

- Alebin neska mutilak  
Ikastola A 5- Ikastola C 5  
Mendaro B 1 Pilar B 6  
Hamaika Txiki 1- Txinpartak 11  
Hamaika Neska 4- Mikel Deu. A 5 (Nes.)  
Ikastola A 4- Goizeko Izar. D 6  
Ikastola C 10 - Pilar A 0  
Mendaro A 4- Pilar A 1 (Nes.)  
Lekube 3- Mikel Deu. B 6  
Ikastola B 2- Goizeko Izar. A 5  
Pilar B 5- Goizeko Izar. B 3 (Nes.)

### AGENDA Otsailak 13 12. "ardunaldia"

#### ESKUBALOIA, (Ikastolan)

- Benjamin mutilak ■  
10:00 Ikastola B- Pilar B  
10:30 Pilar A Ikastola C  
11:00 Herri Eskola A- Mendaro A  
11:30 Herri Eskola B - Ikastola A
- Benjamin neskak ■  
12:00 Pilar A Pilar B  
12:30 Ikastola A- Ikastola C

#### ESKUBALOIA, (Kiroldegian)

- Infantil neska ■  
9:00 Ikastola C - Pilar B  
9:45 Ikastola A- Ikastola E  
11:15 Ikastola D- Pilar A  
12:00 Ikastola B - Jauja

- Infantil mutilak •  
10:30 Insti Pilar A

#### FUTBOLA, (Mintxetan)

- Alebin neska mutilak ■  
A ZELAIA  
9:15 Ikastola B Ikastola C (Nes.)  
10:00 Herri Eskola Txinpartak  
10:45 Hamaika Txiki - Mendaro B  
11:30 Ikastola A- Pilar B  
12:15 Pilar B- Mikel Deuna A (Nes.)  
B ZELAIA  
9:15 Ikastola B - Pilar A  
10:00 Hamaika Neska Pilar A (Nes.)  
10:45 Mendaro A - Lekube  
11:30 Ikastola C - Mikel Deuna B  
12:15 Ikastola A- Goi. Izarra B (Nes.)

# Maila autonomikoko areto futboleko taldea lehen postuan dago

Lehen mailako taldekoak, berriz, azken lekuetan dabilta

**A**reto futboleko gako lehen zatia amaitu berri da eta maila autonomikoko *Zur Ta Lur* taldeak lan polita egin du orain artekoan. Elgoibartarrak lehenengoak dira sailkapenean. Atzetik, bi puntura, iazko txapel-dunak daude, *Cabo Rojo* taldekoak. Elgoibarko areto futboleko talde honek partidu guztiak irabazi ditu azken aldian. Joan den astean, esaterako, 6 eta 2 irabazi zuten etxean Autoservicio Beraun taldearen aurka. Ligako txapel-dunak izan nahi badute gogor jarraituko beharko dute lanean. Aukerarik, behintzat, ez zaie falta.



Ligako lehen bueltako partidu gehienak irabazi ditu autonomia mailako Zur ta Lur taldeak.

Lehen mailako taldeak, berriz, oso beste-iaiko ibilbidea izan du. Nahi baino partidu

gehiago galdu dituzte eta, sailkapeneko azkenengo postuetan dabilta. Hala ere, aune-ko ostiralean izan zuten azken norgehiago-ka eta elgoibartarrek 5 eta 3 irabazi zuten. Bide honetatik jarraitu beharko dute Ligako erdiko postuetara iristeko.

## ELGOIBARKO FUTBITO TXAPELKETA (98/99 DENBORALDIA)

Elgoibarko Aretu Futboleko Elkartek antolatzen duen Futbito Txapelketako lehen zatia amaitu berri da. Bederatzi talde ari dira parte hartzen txapelketan eta da-

goeneko bi partidu jokatu dituzte bigarren fasean. Ondoko taulan, taldeen sailkapena eta atezainen eta jokalariren onenen sailkapena agertzen da.

### TALDEE SAILKAPENA

(13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia) (13. jardunaldia)

Postua	Taldea	Puntuak
1	Kunta Kinte	18
2	Lojantzi	16
3	PSK	15
4	Los Peñaskos	15
5	S. Braga	15
6	Berrogei Duro	7
7	Los Herminios	7
8	Aide Globun	4
9	Aizk. Mendibil	3

### G tn, (; tyt XIEN JA.SO DITUEN ATEZALNA

Postua	Jokalaria	Golak	Taldea
1	Borja Rico	20	Los Peñaskos
2	F. Javier Boo	22	PSK
3		28	Lojantzi
4	Ekaitz Lasuen	43	S. Braga
5	Aitzol Ezenarro	48	Berrogei Duro

### TALDEE SAILKAPENA

Postua	Jokalaria	Golak	Taldea
1	Mikel Ledn	24	PSK
2	Hector Garrido	16	Kunta Kinte
3	Mariano Lopez	15	Lojantzi
4	Josu Orbea	12	Aizk. Mendibil
5	Ernesto Sanchez	11	Los Herminios

## EMAITZAK

### Areto Futbola

Zur Ta Lur Elg. 8- Autos. Beraun 2 (1. maila)  
Zur Ta Lur Elg. 5- S. Ocaso 3 (Auto.)

### Futbola

Gemika 2 - Haundi 1  
Ordizia 2- Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Pedrusko 2- Urola 0 (2. erreg.)  
Zarautz 0- Elgoibar 1 (1. N. jub.)  
Elgoibar 1- Soraluze 3 (1. jub.)  
Elgoibar 5- Hamaika Bat 0 (Kad.)  
Elgoibar 1 - Lehenengokoak 0 (Inl.)  
Antoniano 1- Elgoibar 0 (Nes.)

### Futbito

Lojantzi 0- Kunta Kinte 1  
Aizkorak Mendibil 3- Los Herminios 8  
Berrogei Duro 5- S. Braga 5  
Aide Globun 3- Los Peñaskos 4

### Eskubaloia

Pagoaga Elg. 22 - Ermua 21 (Jub. nes.)  
IMH Elg. 23 - Arrate 24 (Sen. mut.)  
IMH Elg. 27 - Hernani 22 (Sen. mut.)

### idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalariren irregularrena 98/99	JOKALARIA	PUNTUAK
1-	Aitor Trebifio	29
2-	Eneko	21
3-	Diaz	21
4-	Ibon Muguruza	20
5-	Beitia	18
6-	Txasio	18
7-	Iker Leonardo	17
8-	G. Lazarobaster	17
9-	Elkoro	15
10-	Madina	14
11-	Caro	14
12-	Igor	11
13-	G. Leonardo	10
14-	Loren	9
15-	Gurrutxaga	4
16-	Portu	1


## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 13  
16:00 Elgoibar - Athlete (L. N. jub.)  
17:45 Pedrusko - Hamaika Bat (2. erreg.)  
Igandea, 14  
17:00 Haundi - Osasuna

### Eskubaloia, kiroldegian

Larunbata, 13  
16:00 Pneumax Elg. - Urdaneta (Kad. mut.)  
17:30 Tecnomeca Elg. - Urdaneta (Jub. mut.)  
19:00 IMS Elg. - Galdakao (Sen. nes.)



**Erbestealdiko poesia**

**T**izenburu ulergaitza duen liburu hau Joseba Sarrionandiaren orain arteko azken poesia liburu da. Bertan 1985etik, Martuteneko espetxetik hanka egin zuenetik 1995era bitarteko poemak biltzen dira, bi narrazio laburrekin batera.

Liburuak *Denbora presentea eta denbora pasatua, Tren luze eta busiak, Gure arbasoak, Eta denbora futuroa, Marinel korapiloak, Merkatu beltza, Afrikak eta Europak, Monogamo imperfektoak, Hutsik geratu ez ziren zeldak eta Gure hilak atalak dakartza*. Beraietan denetarikoa aurki ditza-kegu: konpromezuzkoak, ukitu surrealista dutenak, ez hain inspiratuak direnak... **Lantzen dituen gaiak denetarikoa dira halaber: bakardadea, amodioa, literatura, Euskal Herria...**

Bukatu aurretik esan, iaz zenbait herritan ernan zen "Dana Ianbrotuta ikustot" muntaiaren jatorrian dagoen poema, "Kimerantzidxa" izenburukoa, liburu honetan aurki dezakezuela, bizkaiera zoragarrian idatzia.

Jon Eugi

Santa Agedako eskeak

**Omenaldi sentitua jaso zuten Ramon Uriguenen eta Sabino Sorondoren senitartekoel**

Bestalde, Elgoibarko Izarrakoek baserrietan batutako 240.000 pta.k Artazorentzat izango dira

*Aurreko astean, Santa Agedaren omenezko eskeak izan ziren. Bezperan, otsailaren 4an, hain justu, herriko ikastetxeetako haurrak koplatan atera ziren. Hauxez gain, Elgoibarko*

*Izarrako 19 lagun baserriaz baserri aritu ziren eskean. Esan digutenez, 240.000 pta. batu zituzten guztira, eta Artazo baserria berrerrailcitzen laguntzeko erabiliko dute.*

**Z**apatuan, hilak 6, Etxegiñak sortutako koruak irten ziren kalera. 60 bat lagun elkartu ziren, 23 gaztetxo tartean. Sigma, San Roke, Santa Klara eta Urasandi auzoak koplatu ondoren, Pedro Muguruza kaletik hasita, alde zaharrean kantatzeari ekin zioten. Eguerdiko 13:00etan, zita berezia zuten Plaza Handian. Bertan, Santa Eskearen alde lan mordoa egindako bi elgoibartar omen- du behar zituzten. Bata, Ramon Uriguen. Iaz hil zen herritar honek 60 urte inguru eman zituen Santa Eskean, aita zenak, German Uriguen Etxegiñak, sortutako tradizioari eutsiz. Bigarren omendua Sabino Sorondo zen, Donostiako Elgoibartarren Batzordeko presidentea eta urtean batutako dirua Elgoibarko Santa Eskearentzat bidaltzen zuena. Bi omenduen senitartekoak elkartu ziren Plaza Handian. Haritz Dantzari Taldeak aureskua dantzatu eta opariak banatu ondoren, Santa Eskekoek omenduei eskainitako koplak kantatu zituzten.

Une hunkigarria izan zen senitartekoentzat. Diru kontuei dagokienez, herrian 206.079 pta. batu ziren eta Donostiako Elgoibartarren Batzordeak egindako eskean, berriz, 25.000 pta., guztira 231.079. Hala ere, gastuak 117.000koak izan dira eta beraz, 114.000 pta. geratu dira. Dirua Caritas-entzat izango da.

Bestalde, Elgoibarko Izarraren koruek 65 baserri koplatu zituzten otsailaren 4an. 19 lagun elkartu ziren eta bi taldetan banatuta, San Migel, San Lorentzo, San Pedro eta Urruzuno auzoetan ibili ziren, guztira 240.000 pta. batu zituztelarik. Goian esan bezala, dirua Artazo baserriarentzat



*Omenduen senideek hunkituta entzun zituzten Santa Eskekoen koplak.*



*Elgoibarko Izarraren koruetan 19 lagun f'bil' ziren eta 65 baserri koplatu zituzten.*

izango da. Elgoibarko Izan'ancoek eskerrak luzatu nahi dizkiete San Migeleko soziedadekoiei "hain afari ederra prestatzeagatik".

Ikastetxeetako haurrek ere Santa Eskea ospatu zuten otsailaren 4an. Herri Eskolakoak, adibidez, San Pedro bailaran ibili ziren eta bildu zuten diru guztia, 20.000 pta., Artazo baserrikoentzat izango da. Izan ere, Artazoko Ainhoa Juaristi, Herri Eskolako ikaslea izandakoa da. Ikastolakoak, bestalde, auzoetan koplatan aritu ostean, herrira jaitsi eta kalez kale kantuan ibili ziren. Azkenik, Pilar ikastetxeoak, patioan elkartu eta bertan ospatu zuten Santa Ageda Eguna.

# Gazteen mez@rro' jaia



*Inauteri egun hauetan gure herria mozorroz eta kolorez jantziko da. Jai honetan adin guztietako jendeak hartzen du parte baina gazteak dira jai-giroan gehien murgiltzen direnak. Beraien asmoez hitz egiteko hiru gazte ekarri ditugu gure artera.*

- MIT@RROTUKO AL ZARA AURTEN INAUTERIETAN?

DISFRAZA N@NDIK ATERATZEN DUZU?

8- TALDEAN ALA BAKARKA MOZORRITZEN ZARA?

4- ZERTAZ EZ ZINATEKE SEKULA MOZORROTUKCI?

8- ZER GAUZA BEREZI EGINGO ZENUKE M@ZORR@ BATEN ATZEAN EZKUTATUTA?

## IZASKUN SARRIUGARTE

1- Bai, mozorrotzeko asmoa badaukat, baina kuadrilan azken unerarte ez dugu erabakitzen zertaz mozorrotuko garen.

2- Txikitari nahi nuen mozorroa amak egiten zidan etxean, baina orain etxeko arropekin edo eskatutako gauzak erabiliz disfrazatzen naiz.

3- Badira bost edo sei urte taldean denok berdina mozorrotzen garena, ordura arte bakoitzak nahi zuen disfrazatzen zuen baina orain ez.

4- Behin monjaz mozorrotu nintzen arren ez zitzaidan batere gustatu. Ilea ere ez dut sekula kolorez margotu baina egunen batean espraiarekin naranjaz-edo tintatzea nahiko nuke.

5- Iruditzen zait mozorrotuta zaudela aprobetxatuz gauza berezi asko egin daitezkeela baina hala

ere nik ez ditut sekula ere egin, ea

**aurtengo**  
inauterietan zerbait egiten dudana.

## EKAITZ GOMEZ

1- Bai, aurtenean mozorrotuko naiz, ondo pasatzeko modu egokia dela iruditzen zait. 60ko hamarkadako arropa edota kolejiak disfrazatzen aukeratuko ditut, beti ere neskaz.

2- Espreski egindako trajeak gutxitan erabili ditut. Normalean lagunei edo familiako norbaiti eskatzen diet arropa eta horrekin moldatzen naiz.

3- Kuadrilan beti egoten dira batzuk mozorro berdina jantzita ateratzen direnak, bestela bakoitzak nahi duen disfrazatzen du.

4- Athletic-eko kamiseta bat jantzita ez nintzateke sekula aterako.

5- Ligatu. Mozorrotuta jendea inauteri giroan hobeto sartzen denez ondo pasatzeko aukera gehiago izaten da eta baita jendea ezagutzeko ere.



## OLATZ BEITIA

1- Oraindik ez dakit ziur mozorrotuko naizen beharbada kanpora joango naizelako, baina bestela bai. Hala ere, ez dut pentsatu zertaz mozorrotuko naizen.

2- Ez naiz sekula egindako traje berezi bat eskatzen duen zerbaitetaz mozorrotu, beraz, etxeko arropa zaharrak jantzita moldatzen naiz.

3- Kuadrilan, eta mozorroa aukeratzeko orduan ados jartzen ez bagara, bakoitzak nahi duena jantzi eta horrela ateratzen gara.

4- Niri ez zait mozorrotzea gehiegi gustatzen baina disfrazatu gabe ateraz gero jende artean nabarmendu egingo nintzatekelako jantzen naiz. Hala ere, gorputzera pegatuta gelditzen den arropa ez nuke inoiz ere jantziko.

5- Nire ustez mozorroak baino gehiago inauterietako giroak baldintzatzen ditu gure jokabideak. Hala ere, karnabaletan edo zer gauza egiteko gai izaten gara.



# 1 larun a a

12:00 ZAZPIK Iren  
BILERA

Ganbaran

17:00 ATXUTXI-KARAOKEA  
Plaza Handian

Antolatzailea:

Atxutxiamaika B. T.

18:00 *STORBAIS eta*  
*HEAD CLEANER*en  
KONTZERTUA

Gaztetxean (doan)

19:00 KALEJIRA  
MAUXITXAREKIN

19:30-22:15 ZINEA  
"Prcticamente magia"

22:00 DANTZALDIA  
*TRAKETS* TALDEAREKIN  
Plaza Handian

23:00 KALEJIRA  
MAUXITXAREKIN

00:00 MOZORRO  
LEHIAKETA

Plaza Handian

Antolatzailea: Gurutze  
Gorriko Astialdi Taldea

# 14 igandea

16:30 HAURREN ZINEA  
"Prcticamente magia"

18:00 DANTZALDIA  
*GELATXO*ekin

Jubilatu Etxean

19:30-22:15 ZINEA  
"Prcticamente magia"

# 1 astele ena

18:30 HITZALDIA

Gaia: Haurrak eta telebista

Hizlaria: Mikel Usubiaga

Kultur Etxean

Antolatzaileak:

Herri Eskola, Arreiturre

Institutua eta

Mendaroko Ikastola

22:15 ZINEA

"Prcticamente magia"

# 1G asteartea

15:00 INAUTERI JAIA  
Herri Eskolan

16:30 MOZORROEN  
TOPAKETA

Plaza Handian

17:00 *TELMAH*  
TALDEAREN  
IKUSKIZUNA

Plaza Handian

18:00 DANTZALDIA  
*GELATXO*ekin eta  
MOZORRO  
LEHIAKETA

Jubilatu Etxean

19:30 SUZKO ZEZENA  
Plaza Handian

Antolatzailea: Udala

23:00 KONTZERTUA  
MALAPE TABERNAN

Taldea: *Simubse*

# 12 ostirala

19:00 'HERRI ESKOLAK,  
ESKOLA BIZIAK'  
ERAKUSKETAREN  
INAUGURAZIOA

Kultur Etxean

Antolatzaileak:

Herri Eskola, Arreiturre  
Institutua eta Mendaroko  
Ikastola

Laguntzailea: Udala  
Hilaren 21era arte

22:15 ZINE KLUBA  
"El faro del sur"

Antolatzailea:

Ongarri Zine Kluba

22:30 DANTZA GANBARA  
(Kultur Errotaren 5.  
emanaldia)

Kultur Etxeko Sotoan

Antolatzailea:

Elgoibarko Izarra eta  
Topagunea

# 11 NE A



Zuzendaria: Griffin Dunne.  
Antzezleak: Sandra Bullock, Nicole  
Kidman, Stockard Cahnning.

## Practicamente magia

Owen ahizpak sorginen familia bateko azken belaunaldia dira. Sorginak izan arren, maitasun kontuetan zorte txarra dute. Maitatu izan duten gizon guztiak hil egin dira. Ahizpa batek familiarengandik urrundu nahi du eta maiteminduta dagoen poliziaren ondoan zoriontasuna bilatu. Beste ahizpa, berriz, oso bes-telakoa da. Nahiago du gaur batekin eta bihar beste batekin



## 18 osteguna

22:15 ZINE KLUBA

"Boggie nigths"

Antolatzailea:

Ongarri Zine Kluba

## 19 ostirala

18:00 MERTXE  
ZABALA IPUIN  
KONTALARIA

Kultur Etxean

Antolatzaileak: Herri

Eskola, Arreiturre

Institutua eta Mendaroko

Ikastola

22:15 ZINEA

"Mlis alld de los suerios"

### • Herri Eskolak, Eskola Biziak erakusketaren irekiera ekitaldia

Elgoibarko Arreiturre Institutuak, Herri Eskolak eta Mendaroko San Jose Ikastolak Udalaren laguntzaz antolatutako erakusketa hasiko da gaur, hilak 12 (ostirala). Arratsaldeko 19:00etan izango da irekiera ekitaldia eta amaieran Iuntxa eskaintxo zaie joaten diren guztiei. Bertan, Elgoibarko eta Mendaroko herri eskolen jarduera ikusteko aukera izango da hilaren 21era arte. 2 urtetik 16 urtera bitarteko ikasleen lanak, urteko ekintzak, maila bakoitzean erabiltzen dituzten teknologiak, Internet, bideoak etab. erakutsiko dituzte. Erakusketan bertan orde-nagalluak jarriko dituzte eta nahi duenak aukera izango du hurrek eskolan erabiltzen dituzten programa infor-matikoak ezagutzeko.

#### Hitzaldia eta ipuin kontalaria

Herri Eskolari buruzko erakusketarekin batera, beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte. Otsailaren 15ean, astelehena, telebista eta haurrak gaiaren in-guruan jardungo du Mikel Usubiaga adituak. Hitzaldia Kultur Etxean izango da arratsaldeko 18:30ean. Bestetik, datorren ostiralean, hilak 19, Mertxe Zabala ipuin kontalariak hurrei zuzendutako saioa eskaini-ko du Kultur Etxean arratsaldeko 18:00etan.



### • Gorputz adierazpena eta erlajazioa

Udal Kirol Patronatuaren eskutik, gorputz adieraz-penari eta erlajazioari bu-ruzko ikastaroa antolatu da. Bi astez luzatuko da, astearte eta ostegunetan (15:30-17:00 edo 18:30-20:00). Izena emateko Kiroldegira zuzendu (943 74 44 15).

### • Kontzertua Gaztetxean

Bihar, hilak 13, bi taldek kontzertua emango dute Gaztetxean arratsaldeko 18:00etan hasita. Ennuko *Storbais* taldeak diska ber-ria aurkeztuko du. Ondoren, Eibarko *Head Clea-ner* taldeak joko du. Sa-rreara doan izango da.

## Ullifil) 12

### FARMAZIAK

Egunez Gaez

13 Yudego\* Escala

14 Yudego\* Escala

15 Bidasolo Bidasolo

16 Etxeberria Etxeberria  
(Santa Ana kalean)

17 Anduaga Anduaga

18 Yudego Yudego

19 Zabaleta Zabaleta

\*Eguerdiko 14:00ak arte

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Mendarozabal, 1

Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

14 igandea Eizagirre

ONGARRI  
zine kluba



Zuzendaria: Paul Thomas.  
Antzezleak: Mark Walberg,  
Dirk Diggier, Burt Reynolds.

### Boggie nigths (EEBB 1996)

Zine amerikarrak sorpresa ederra eman zuen iaz pelikula honekin. 27 urteko Paul Thomas zuzendariak egindakoa, amerikar gizartean hautsak harrotu zituen, gaia dela-eta. Hala ere, kritikaren eta ikusle goaren onespina jaso du. Ameri kako zine pornografikoaren erretratu dotorea erakusten digu. Gazte bat, zine pornoko izarra bihurtuko da bere zakila-ren luzera dela-eta.

R • 11 111 R1 ||| • 1 • 111 • • III • ■

OHARRA; **MerkatuTxikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia da.**

## Etxebizitzak

### Lana

#### \*ESKAINNTZA\*

+ Neska behar da ume hat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Orduategia 7:30etik 15:30era.. te 943 74 28 93 (arratsalde)

• Elgoibarko enpresa batek 18-25 urte bitarteko mutila, soldaduzkatik libre dagoena, euskaraz dakiena, egoera fisiko onekoa, trebea eta gidatzeko baimena duena behar du. Lanpostu egonkorra eskaintzen da. te 943 74 30 94 (9:30etik-12:30era / 15:00etatik-18:30era)

• Agentzia inmobiliarioak saltzaileak behar ditu salmenta inmobiliario-etarako. r/e50eko komisioa. ir 943 74 43 58

#### \*ESKAERA\*

• Ostalaritzan, umezaintzan eta garbiketean esperientziadun neska eskaintzen da. fr 943 74 22 03/943 74 07 07

• Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko Elgoibar edo Mendaron. Orduategia hitz egiteko-tan. a 943 74 20 94 (Yolanda)

• Erizantzian diplomatutako neska euskalduna pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko eskaintzen da. Etxean edo ospitalean, egunez edo gauez. te 943 74 27 78 (itziar)

◆ Neska eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ir 943 74 35 43

◆ Neska gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu eta garbiketarako egiteko orduko. Esperientziarekin. Tr 943 58 40 31 (Elgoibar)

## Partikularrak

• Kimikan lizentziatuak matematika, fisika eta kimika klaseak ematen ditu Mendaron. Maila guztiak: OHO, DBH, BBB, UBI, FP, REM... Esperientziarekin. a 943 75 62 51

• Etxea saltzen da Santa Ana kalean, 2. pisua da, ganbara eta igo-gailuarekin, te 943 74 03 83 943 74 18 34

• Etxea behar dut alokairuan hartzeko. Premia handia daukat. a• 943 74 12 21

◆ Kanpora ematen duen pisua saltzen dut. Eguzkitsua. Lau logela, sukaIdeia, saloi-jangela, hi bainugela eta patio-trasteroa. Oso handia da. Urasandin. a• 943 74 14 54 (gauez, 22:00-00:00)

◆ Pisua saltzen da Mendaron. 76 m2 ditu. ir 943 74 31 07

◆ Pisua behar dut alokairuan. Sei hilabeterako. Altzariekin bada hobe. a 649 03 65 82 (Santi)

## Garajeak

Garajea saltzen da Urasandi gan. Argi independentea. a• 943 74 08 63

◆ Garaje itxia salgai Polikiroldegi ondoan. a 943 74 21 31 (Santi)

◆ Garajea salgai Leku-Ederren. ir 943 74 43 98

• Garaje itxia salgai Pista beltzean. er 943 74 03 81

## Salerosketak

#### \*SALDU\*

• Ur berodun akuario handi bat saltzen dut, osagarri guztiekin. Prezio onean. 11. 943 74 15 16 (16:30etik aurrera deitu)

◆ Game Boy-ko jokoak saltzen ditut, a 943 74 11 85 (16:30etik aurrera deitu)

• Butanoko estufa saltzen dut. te 943 74 23 90

◆ Golf GTI autoa saltzen dut. 6 urte ditu eta egoera onean dago. w 648 77 17 32

## Bestelakoak

• Katua oparitzen da. Interesatuak deitu 943 74 05 62 telefonora, (Almudena)

• Caritas-ek bi ateko armairua eskaintzen du. tr 943 74 15 09

◆ Tabenta traspasatzen da. n 943 74 19 43 (Nekane)

Urtarrilaren 19an sei harri dituen belarritakoa galdu nuen Andikano baserritik San Frantzisko kalera bitartean. n 943 74 13 14 (Itziar)

## Agurrak

• Zorionak Agurtzane eta Jose Ramon Aitor txikia gure artera ekarri duzelako. Musu handi bat familiakoan partez.

• Zorionak Iratxe Bastidari 15 urte bete dituelako. Familia osoa eta Arrasateko izeba-osaba eta lehengusuaren partez.

• Zorionak Guruzne hilaren leant gu baino zaharragoa bihurtu zinelako, P.D: zintzilikatu pinu batetik. DBHko 2. mailako guztien partez.

• Zorionak Luisa Castrillejori, hilaren 15ean urteak beteko dituelako bere iloba Saray eta Eiderren partez.


◆ Zorionak Ainhon Uribeetxeberriari gaur 12 urte bete dituelako. Txabolakoan eta Ikastolako 6, mailakoan partez ondo pasa dezazula.

• Zorionak Sara Perezi otsailaren 16an urteak beteko dituelako eta baita Itxaso Perezi ere, otsailaren 17an urteak beteko dituelako. Ikastolako 5, mailakoan partez.

• Zorionak Frida, zure guraso eta anaien partez. Egun zoriontsua pasa dezazula zure urtebetetze egunean Leongo lagunekin,




• Zorionak retxu zure 20+urtebetetzean! ondo pasa, bonboi gutxi jan eta "formal" ibili inauterietan.



• Zorionak Juan Zapatari hilaren 10ean 6 urte bete zituelako, familiaren partez eta bereziki Iker eta hoaren partez.



• Zorionak Thigo, hilaren 14an 8 urte beteko dituzulako zure anaia lon, guraso, Ana eta bere familiaren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak Alexi hilaren 16an hainbat urte beteko dituelako bere iloba Eider eta Sarayren partez.



• Zorionak Saray, gaur 5 urte bete dituzulako. Familia osuaren partez, eta bereziki zure ahizpa Eiderren partez muxu handi bat.

• Japi Berdei Peif, aurtengoan pasteltxoak oso goxoak zeuden, baina ia datorren urterako kafetxo goxo bat prestatzen diguzun zure etxetxo berrian. Muaaaaa!



• Zorionak Oscar Martinezi aurreko zapatuan urteak bete zituelako guraso eta arrebaen partez.

# Inauteriak

Lwulbt.11, It,

**22:00etan**

Dantzaldia TRAKETS TALDEAekin  
Foruen plazan

**23:00etan**

MAUXITXA txarangarekin kaiejira

**00:00etan**

MOZORRO LEHIAKETA  
Foruen Plazan  
Gurutze Gorriko  
Astialdi Taldeak antolatuta

**Taldeko Sariak:**

1. saria: 30.000 pta.
2. saria: 20.000 pta.
3. saria: 15.000 pta.

**Banakako Sariak:**

1. saria: 20.000 pta.
2. saria: 15.000 pta.

**Koreografia onenari:**

10.000 pta.

9111111


KULTURA SAILA

Lehiaketan izena emateko  
epea 23:30ak arte

EL GOIBAREN

# BIZITZEKO ERA BERRIA

-0"1%.



WABALIA  
NA gcl-na  
**Maala**

**Estilo herrizailea duen ingurua sortu nahi dugu, Gaur egungo bizitzeko erari konponbide berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu. Apartamentuak 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Terraza zabaleko duplex-ak Etxebizitzak lorategiarekin. Garajeak, Trastelekuak eta saltokietarako lokalak.**



Argibideak eta salmenta: obran bertan



**943 74 24 00**

Sustatzailea:

**MENDIBIL  
ELGORRIAGA,  
A.I.E.**

Eraikitzailea:

**41111.AL**

CONSTRUCCUWABALIA.